# Xedapen Orokorrak

## JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

### Zk-3938

9/1997 LEGEA, ekainaren 27koa, Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak ondoko legea onartu duela jakinaraztzen zaie Euskadiko herritar guztiei:

EKAINAREN 27KO 9/1997 LEGEA, CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEARI BURUZKOA.

ZIOEN ADIERAZPENA

Gizarte eta lan-arloko erakundeek sare zabala dute Autonomia Erkidegoko lurraldean.

Sare horretan hiru erakunde aholku-emaile nabarmentzen dira:

– Consejo de Relaciones Laborales / Lan Harremanen Kontseilua, irailaren 30eko 9/1981 Legeaz sortua.

– Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, azaroaren 15eko 4/1984 Legeaz sortua eta ekainaren 30eko 15/1994 Legeaz aldatua.

– Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko Kontseilu Nagusia, autonomiadun erakunde hori sortzeko abenduaren 21eko 7/1993 Legean arautua.

Gure ingurunean jendeak herri-eginkizunetan partehartzea zerbait on, bateratzaile eta aberasgarritzat jotzen denez, zerrendatu diren erakundeak ez dira, noski, Autonomia Erkidegoko administrazio-lanetan aritzen diren bakarrak, ezta lan-arloan ere. Baina hiru erakunde horiek dira hurrengo hiru ezaugarriak biltzen dituztenak:

– Benetako lege batez sortu izan dira. Beste batzuk ez bezala, esaterako Lanbide Heziketako Euskal Kontseilua.

– Irauteko izaera eta borondatea dute. Eta Aurrekontu Legean agertzen den enplegu eta prestakuntza-planei jarraitzeko batzordeak, adibidez, ez du ezaugarri hori betetzen, hau da, batzorde horrek legeak duen indarraldi bera izango du.

– Gaiak lan-arlokoak dira (ez guztiz Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen kasuan). Horixe da, bada,

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

### N°-3938

LEY 9/1997, de 27 de junio, del Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea.

Se hace saber a todos los/las ciudadanos/as de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

LEY 9/1997, DE 27 DE JUNIO, DEL CONSEJO ECONÓMICO Y SOCIAL VASCO / EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA.

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

En el ámbito de la Comunidad Autónoma existe un amplio entramado institucional de carácter sociolaboral.

En este entramado destacan tres entes consultivos u organismos:

– El Consejo de Relaciones Laborales / Lan Harremanen Kontseilua, creado por la Ley 9/1981, de 30 de septiembre.

– El Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, creado por la Ley 4/1984, de 15 de noviembre, modificada por la Ley 15/1994, de 30 de junio.

– El Consejo General de Osalan, Instituto Vasco de Seguridad y Salud Laborales-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundea, regulado en la Ley 7/1993, de 21 de diciembre, creadora del citado organismo autónomo.

Evidentemente, en una sociedad en la que la participación social en el quehacer público se entiende como un valor positivo, integrador y enriquecedor, con este listado no se agota la relación de órganos de la Comunidad Autónoma en los que se dan fórmulas de participación social en el entorno administrativo, ni tan siquiera son los únicos en los que dicha participación se produce en el ámbito laboral, pero sí son los tres organismos en los que coinciden tres características:

– Han sido creados por ley formal. En ello se distinguen, por ejemplo, del Consejo Vasco de la Formación Profesional.

– Tienen carácter y voluntad de permanencia, lo que les distingue, por ejemplo, de la Comisión de Seguimiento de los planes de empleo y formación que aparece en la ley de Presupuestos y que, en consecuencia, goza del mismo carácter temporal que ésta.

– Se trata de materias inequívocamente laborales (aunque en el Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

alderik handiena Euskal Autonomia Erkidegoko gainerako topagune-erakundeekiko. Badaude erakunde asko lan-arlokoak ez direnak eta, hala ere, badute eragile ekonomiko-sozialen partaidetza (Gizarte Ongizaterako Euskal Kontseilua, Drogamenpekotasunen Aholku Batzordea...); badaude, haatik, beste batzuk garrantzizko eragin ekonomiko-soziala dutenak, baina lan-arlokoak «stricto sensu» ez direnak (Funtzio Publikoaren Euskal Kontseilua); beste batzuetan, azkenik, lan-arloa eztabaidatzeko moduko gaia da, beste hainbat bezalakoa (Euskadiko Eskola Kontseilua, besteak beste).

Hasieran aipaturiko hiru erakundeak gogoan edukiz, haietako bakoitzaren araudia aztertu eta gero ikusten da zenbait gai modu desberdinean tratatu izan dela. Hori dela-eta, beharrezkotzat jotzen da kontraesan hori gainditzea eta oinarrizko hatsapenen araberako araubide bakarra ezartzea erakunde guztiei. Era berean, ordezkari sindikalak izendatzeko aldaketa teknikoren bat egin beharra dago, maiatzaren 19ko 11/1994 Legeak hauteskunde sindikalen sistema aldatzearen ondorioz.

Aurreko pasartean aipaturiko oinarrizko hatsapenak erreformaren muina dira. Hauexek dira:

1.– Erkidegoan ordezkaritzarik handiena eta gutxieneko ordezkaritza bat duten sindikatu guztiek egon beharko dute lan eta gizarte-arloko partehartze-erakunde guztietan.

Osterantzean, erakundeak berak daukan izaeraren kaltetan izango litzateke.

2.– Lehen aipaturiko erakundeen baitan, araudi bidez edo barne-araudi bidez, sortzen diren organo guztietan (batzorde, kontseilu, organo betearazleetan...) lekua izango dute, era berean, Autonomia Erkidegoan ordezkaritzarik handiena eta gutxieneko ordezkaritza duten sindikatuek.

Hatsapen hori aurrekoaren osagarri izango da, eta horren ondorioz ordezkaritza maila guztietara iritsiko da. Hori horrela, ahalmenak maila beheragoko organoei eskuordetzen zaizkienean, sindikatuen ordezkaritza ez da ahulduko erabakiak hartzerakoan.

3.– Lortutako akordiarekin bat ez datozen antolakundeek, oro har, boto partikularra adierazteko aukera izan behar dute, eta adierazpen hori akordioan bertan jasoko da.

4.– Lehen aipatzen genuen hauteskunde sindikalen sistema aldatzearen ondorioz, hautaketa jarraiko prozedura ezarri da, baina, horrekin batera, beste behar bat ere ikusten da, hots, organoak sortu edo berritzen diren garaiko ordezkaritza islatu beharra organo horien osaeran eta ordezkaritza-maila hori osaeraren edo berrikuntzaren iraunaldi osoan mantendu beharra.

no de forma exclusiva). Éste es el principal rasgo diferenciador respecto a los distintos organismos de encuentro de que disponemos en la Comunidad Autónoma del País Vasco. Existen muchos de ellos que no son claramente laborales, y en los que no obstante existe presencia de los agentes económicos y sociales (Consejo Vasco de Bienestar Social, Consejo Asesor de Drogodependencias...), y otros que tienen una trascendencia económico-social importante pero que, o no son «stricto sensu» laborales (Consejo Vasco de la Función Pública), o su carácter laboral constituye una más de las posibles facetas a discutir en esos organismos (Consejo Escolar de Euskadi, entre otros muchos).

Refiriéndonos por tanto a los tres organismos citados al principio, el análisis del articulado de sus normativas reguladoras da lugar a que, de una parte, se perciban diferencias de tratamiento en algunas materias que suponen una contradicción que debe ser salvada, de forma que se establezca una regulación que responda a unos principios básicos aplicables a todos los organismos, y, de otra, se hace precisa la realización de alguna reforma de carácter técnico en la designación de los/as representantes sindicales, como consecuencia de la nueva situación creada por la modificación producida en el sistema de elecciones sindicales por la Ley 11/1994, de 19 de mayo.

Esos principios básicos a los que hacíamos referencia en el párrafo anterior sintetizan el espíritu de la reforma, y son:

1.– En todos los entes u organismos de participación existentes en materia socio-laboral que se definan deberán tener presencia todos los sindicatos representativos y más representativos de la Comunidad.

Lo contrario supone un defecto de representación que desvirtúa su propio carácter.

2.– En todos los órganos que se creen, bien reglamentariamente o bien por reglamentos internos (comisiones, consejos, órganos ejecutivos, etc.), en el seno de los organismos antes citados, deberán igualmente tener presencia todos los sindicatos representativos y más representativos de la Comunidad.

Este principio complementaría el anterior haciendo que esa representatividad se produzca en todos los niveles. Se logrará así que la delegación de facultades en órganos inferiores no desvirtúe la presencia sindical representativa en todas las decisiones.

3.– Se debe establecer con carácter general la posibilidad de que las organizaciones discrepantes del acuerdo adoptado realicen voto particular que se adjunte siempre a dicho acuerdo.

4.– Dada la modificación producida en el sistema de elecciones sindicales a que antes hacíamos referencia y que nos ha llevado a un procedimiento de elección continua, es preciso establecer un mecanismo por el cual la composición de los diferentes órganos refleje la representatividad que se ostenta en el momento de su creación o renovación, manteniéndose esa representación para todo el periodo de duración de la citada composición o renovación.

5.– Azkenik, badago erreformaren alderdi bat nabarmendu behar dena, hatsapen orokor edo erabatekoa ez bada ere. Organo sozio-laboraletako gizarte-alderdiko boto ponderatuaren arazoa da; gai hori eta taldekako botoarena elkar loturik doaz.

Sindikatuen botoa ezartzea, haietako bakoitzak dituen ordezkarien arabera, zenbait partehartze-erakunde eta organotan, Euskadiko egoera sozio-laboralaren ezaugarria dela esan daiteke. Sindikatuen boto ponderatua oso onuragarria da; izan ere, sindikatu bakoitzaren ordezkaritza askoz zehatzago hartuko da kontuan akordioetara heltzeko orduan.

Gainera, ezaugarri horri eutsi diote bai Eusko Legebiltzarrak (Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Aldatzeko ekainaren 30eko 15/1994 Legea, lege horretan lehenengo aldiz ezarri baitzen) bai sindikatuek, horrela erabaki baitzuten etengabeko prestakuntzaren kudeaketa-erakunderako.

Ez da egia gutxiagokoa, hala ere, sindikatuen ordezkaritza duten erakunde eta organo guztietara hatsapen hori hedatuko balitz, alde batetik zentzugabeko egoeretara eramango lukeela (adibidez Euskadiko Eskola Kontseiluaren kasua; hor sindikatuen ordezkaritza beste hainbat bezalakoxea da, izan ere, hor daude gurasoak, ikasleak, irakasleak, administrazioa, arlo horretako enpresarioak...) eta, bestetik, sindikatuen mugikortasun-eza edo zurruntasuna ekarriko lukeela, eta azken hau ez da oso zentzuzkoa sindikatuek parte hartzen duten organo guztien kasurako.

Orain arte adierazitakoa laburbilduz, hauxe esan genezake: organoaren izaera eta funtzio bereziak direlaeta sindikatu-taldearen jarrera talde gisa adierazi behar den organoetan eta atera den sindikatu-ordezkaritza islatzen ez den organoetan ezar daiteke boto ponderatua.

Hatsapen horien arabera aldatu behar dira aipaturiko hiru arauak; dena dela, legegintzako tekniken arrazoiengatik, erreformak dakartzan egoerei bidea emateko, hiru lege-egitasmo egin behar dira.

Lege honen ondorioz Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea aldatu behar da ezinbestez. Testu osoa erabat berria egitea erabaki da, zeren 1994. urtean egindako erreformaren gainean beste bat egiteak testua ulergaitz utziko zukeen eta legearen inguruan lan egiten dutenek arazoak izango zituzketen araua ulertzeko ere.

Ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoko politika sozio-ekonomikoan Batzordeak eragile ekonomiko eta sozialen topagune gisa eta parte hartzeko bide gisa daukan garrantziaz jabeturik, eta bere eraginkortasuna

5.– Por último hay un aspecto de la reforma que, aunque no tenga el mismo carácter de principio general o absoluto, merece ser destacado. Se trata de la cuestión del voto ponderado en la parte social de los órganos socio-laborales, inexorablemente unida al voto por grupos en los mismos.

El establecimiento del voto sindical en determinados entes u organismos de participación, en función de la representatividad que cada organización ostente, puede definirse como una peculiaridad de la realidad sociolaboral de Euskadi, que aporta un elemento indudablemente positivo: el voto sindical ponderado supone tener en cuenta la representatividad sindical de forma mucho más exacta en la adopción de los acuerdos.

Esta peculiaridad, además, ha obtenido el respaldo suficiente tanto del Parlamento Vasco (Ley 15/1994, de 30 de junio, de modificación de la ley del Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, en la que se instituyó por primera vez) como de las propias organizaciones sindicales, que así lo acordaron para el organismo de gestión de la formación continua.

No es menos cierto, no obstante, que la generalización de este principio a todos los entes u organismos en los que haya presencia sindical, de una parte, podría conducir a situaciones absurdas (piénsese en una decisión de este tipo en un órgano como el Consejo Escolar de Euskadi, por ejemplo, en el que la presencia sindical es una más en un foro de participación amplísimo -padres, alumnos, profesores, administración, empresarios sectoriales, etc.-), y, de otra parte, supone una rigidez en la capacidad de actuación y maniobra de las distintas organizaciones sindicales que no es comprensible en todo tipo de órganos en los que participen.

La consecuencia de todo lo expuesto hasta ahora es evidente: sólo en aquellos órganos en los que por su especial naturaleza y funciones la posición del grupo sindical deba ser expresada como tal grupo y en los que la composición personal del mismo no respete la representatividad sindical obtenida puede establecerse el voto ponderado.

En base a esos principios deberán modificarse las tres normas citadas, si bien razones de técnica legislativa, ante las distintas situaciones que esta reforma supone, conllevan la necesidad de realizar tres proyectos de ley distintos.

La presente ley supone la modificación del Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea. En este caso se ha optado por la realización de un nuevo texto completo, puesto que una nueva reforma sobre la ya producida en el año 1994 haría el texto absolutamente incomprensible, de forma que los operadores jurídicos tendrían muchos problemas incluso para la comprensión literal de la norma.

En consecuencia, y conscientes de la importancia que tiene el Consejo como foro de encuentro y vía de participación de los intereses económicos y sociales en la política socio-económica de la Comunidad Autónoma

hobetu nahian, zenbait aldaketa sartu da lege honen bidez, lehen aipaturiko 2 eta 4. puntuetan jasotako hatsapenak, hain zuzen ere, gainerakoak ordurako jasota baitzeuden.

Batzordearen osaeran ere aldaketa xume bat egin da, arrantzale-kofradien ordezkariaren ordez arrantza-elkarteen ordezkaria jarri baita; hori horrela, sektorearen ordezkaritza handiagoa izango da. Halaber, beste aldaketa tekniko batzuk ere egin dira, baina ekainaren 30eko 15/1994 Legeaz aldatu zen azaroaren 15eko 4/1984 Legearen izpiritua ez da horiengatik aldatu.

## I. ATALBURUA
## XEDAPEN OROKORRAK

*1. atala.–* Sortzea, izena eta egoitza.

1.– Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak (aurrerantzean Batzordea) lege honetan ezartzen diren eginkizunak, osaera eta egitura ditu.

2.– Batzordeak Bilbon izango du bere egoitza. Bere organoen bilerak egoitza horretan egingo dira, osoko bilkurak Autonomia Erkidegoko beste nonbait egitea deliberatzen ez badu.

*2. atala.–* Izaera.

1.– Batzordea Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren erakunde aholku-emailea da, eta bere helburua Euskadiko politika ekonomikoan interes ekonomiko zein sozialen benetako partehartzea lortzea da.

2.– Batzordeak bere nortasun juridiko publikoa izango du, Autonomia Erkidegoaren Administrazioarena ez bezalakoa, eta gaitasun osoa izango du bere eginkizunak betetzeko lege honetan ezarritako moduan.

3.– Batzordea ez dago Jaurlaritzaren menpe, ezta Legebiltzarraren menpe ere, bere eginkizunak betetzeko.

*3. atala.–* Eginkizunak.

1.– Batzordearen izaera kontuan izanik, honako eginkizunak betetzea dagokio:

a) Politika ekonomiko-sozialarekin zerikusia duten lege-egitasmoei buruzko txostena derrigorrez ematea. Ez dute aurretiazko irizpenik izango Autonomia Erkidegoko aurrekontu orokorren lege-egitasmoek, ezta lege hori aldatzeko edo osatzeko arauek ere, Jaurlaritzak eman dezakeen txostenaren kaltetan joan gabe.

b) Politika ekonomiko-sozialarekin zerikusia duten eta, Jaurlaritzaren ustez, garrantzi handikoak diren dekretu-egitasmoei buruzko irizpena derrigorrez ematea. Ez dute irizpen horren beharrik izango aurreko ekitaldietan onarturikoen jarraipena direnek, ezta funtsezko berrikuntzarik edo aldaketarik ez dakartenek. Hala eta guztiz ere, Jaurlaritzak bere esku izango du azken horiei buruzko irizpenak ere eskatzea.

del País Vasco, y con objeto de mejorar su operatividad, las modificaciones introducidas en la presente ley tratan de insertar los principios reflejados en los números 2 y 4 antes citados, puesto que el resto de los mismos ya estaban recogidos.

Igualmente se introduce una pequeña reforma en la composición al sustituir el/la representante de las cofradías de pescadores por un/a representante de las organizaciones pesqueras, con lo que se logra una mayor representación del sector. Así mismo se introducen otras modificaciones de carácter técnico que no modifican el espíritu de la Ley 4/1984, de 15 de noviembre, modificada por la Ley 15/1994, de 30 de junio.

## CAPÍTULO I
## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.–* Denominación y sede.

1.– El Consejo Económico y Social Vasco / Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea (en lo sucesivo, el Consejo) tiene las funciones, composición y estructura que se establecen en la presente ley.

2.– El Consejo tiene su sede en Bilbao. Las sesiones de sus órganos se celebrarán en dicha sede, salvo que el pleno acuerde que se celebren en algún otro lugar perteneciente al ámbito territorial de esta Comunidad Autónoma.

*Artículo 2.–* Naturaleza.

1.– El Consejo constituye un ente consultivo del Gobierno y del Parlamento, a fin de hacer efectiva la participación de los distintos intereses económicos y sociales en la política económica del País Vasco.

2.– El Consejo gozará de personalidad jurídica pública propia, distinta de la de la Administración de la Comunidad Autónoma, con plena capacidad para el ejercicio de sus funciones, en los términos de la presente ley.

3.– El Consejo es independiente del Gobierno y del Parlamento en el desarrollo de sus funciones.

*Artículo 3.–* Funciones.

1.– De acuerdo con su naturaleza corresponden al Consejo las siguientes funciones:

a) Informar con carácter preceptivo los proyectos de ley relacionados con la política económica y social, exceptuándose de dicho informe previo los proyectos de ley de Presupuestos Generales de la Comunidad Autónoma, así como las normas legislativas de modificación o complemento de la misma, sin perjuicio de que el Gobierno informe de su contenido.

b) Informar con carácter preceptivo los proyectos de decreto relacionados con la política económica y social que tengan especial trascendencia a juicio del Gobierno. Se exceptúan de dicho informe los proyectos de decreto que supongan una continuidad de los aprobados en ejercicios anteriores o que no impliquen innovaciones o modificaciones sustanciales. No obstante lo anterior, el Gobierno podrá solicitar informe de los mismos potestativamente.

c) Aurreko puntuetan aipaturiko gaiei buruzko proposamenak egitea Jaurlaritzari.

d) Aurreko a) eta b) letretan aipaturiko gaiei buruzko irizpenak, erabakiak edo txostenak egitea, bere kabuz edo Jaurlaritzaren eskariz. Legebiltzarrak ere galderak egin ahal izango ditu.

e) Jaurlaritzak prestatzen duen Autonomia Erkidegoko arlo publikoko iharduera ekonomikoari buruzko plangintzan parte hartzea.

f) Urtero txosten bat prestatu eta Eusko Jaurlaritzari eta Legebiltzarrari bidaltzea. Memoria horretan Euskal Autonomia Erkidegoaren egoera sozial eta ekonomikoari buruzko gogoetak azalduko ditu Batzordeak.

2.– Aurreko pasartearen a) eta b) letretan aipatzen den derrigorrezko txostena Jaurlaritzak eskatu duenetik hogeita hamar egun, lehenengo kasuan, edo hamabost egun, bigarrenean, igaro badira, eta txostena eman ez bada, ekintzekin aurrera jarraitu ahal izango da, uko egin gabe Batzordeak geroago txostena Jaurlaritzari bidaltzeko izan dezakeen aukerari, hala nahi baldin badu.

3.– Jaurlaritzak seihilabetero bidaliko dio txosten bat Batzordeari, Autonomia Erkidegoko egoera ekonomikoaz eta Jaurlaritzaren politika ekonomikoaz.

4.– 1. pasartearen a) letran aipaturiko lege-egitasmoak Jaurlaritzak Legebiltzarrari bidaltzen dizkionean, Batzordearen txostena ere gehituko du, hala balegokio.

## II. ATALBURUA
## OSAERA ETA IZENDAPENA

*4. atala.*– Osaera.

1.– Batzordea hogeita hamabi kidez osatuko da, honela:

a) Ordezkari gehien dituzten sindikatu eta sindikatu-konfederazioen izenean eta ordezkaridun sindikatu eta sindikatu-konfederazioen izenean zortzi kide.

b) Enpresa-konfederazioen ordezkaritzan zortzi kide.

c) Autonomia Erkidegoko sektore, erakunde, entitate edo elkarte hauetako bakoitzaren ordezkaritzan zortzi kide: merkataritza, industria eta nabigazioko ganbarak, aurrezki-kutxak eta finantza-erakundeak, kooperatibak, akziokako lan-baltzuak, arrantzako elkargoak, nekazaritzako elkargoak, kontsumitzaileen elkargoak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.

d) Zortzi aditu.

2.– Batzordeak buru bat izango du. Aurreko pasartean aipatutako kideren bat izango ez balitz, Batzordearen kide-kopurua 33ra gehituko da.

*5. atala.*– Kideen proposamena eta izendapena.

1.– Batzordearen kideak honela hautatuko dira:

a) 4.1 a) atalean aipatzen diren kideak honako sindi-

c) Formular propuestas al Gobierno sobre las materias a que se refieren los apartados anteriores.

d) Elaborar dictámenes, resoluciones o informes, por propia iniciativa o a petición del Gobierno, en las materias a que se refieren los apartados a) y b) anteriores. El Parlamento podrá también realizar consultas.

e) Participar en la planificación de la actividad económica del sector público de la Comunidad Autónoma que elabore el Gobierno.

f) Elaborar y elevar al Gobierno y al Parlamento Vasco anualmente una memoria en la que se expongan sus consideraciones sobre la situación económica y social en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

2.– Transcurridos treinta y quince días respectivamente desde la solicitud, por parte del Gobierno, del informe preceptivo a que aluden los apartados a) y b) del párrafo anterior, si éste no se ha emitido se podrán proseguir las actuaciones, sin perjuicio de que el Consejo pueda remitirlo al Gobierno con posterioridad, si lo estima oportuno.

3.– El Gobierno remitirá al Consejo semestralmente un informe sobre la situación económica de la Comunidad Autónoma y la política económica del Gobierno.

4.– El Gobierno, al remitir al Parlamento los proyectos de ley a que se refiere el apartado a) del párrafo 1, adjuntará el informe elaborado, en su caso, por el Consejo.

## CAPÍTULO II
## COMPOSICIÓN Y DESIGNACIÓN

*Artículo 4.*– Composición.

1.– El Consejo estará integrado por treinta y dos personas de acuerdo con la siguiente composición:

a) Ocho personas en representación de las organizaciones y confederaciones sindicales más representativas y representativas.

b) Ocho personas en representación de las confederaciones empresariales.

c) Ocho personas en representación de cada uno de los sectores, instituciones, entidades o asociaciones de la Comunidad Autónoma siguientes: cámaras de comercio, industria y navegación; cajas de ahorros y entidades financieras; cooperativas; sociedades anónimas laborales; organizaciones pesqueras; organizaciones agrarias; organizaciones de consumidores y Universidad del País Vasco.

d) Ocho personas expertas.

2.– El Consejo tendrá un presidente o una presidenta. Si éste no fuera una de las personas a que se refiere el párrafo anterior, el número de miembros del Consejo se elevará a 33 personas.

*Artículo 5.*– Designación y nombramiento.

1.– Los miembros del Consejo serán designados en el modo siguiente:

a) Los miembros a que se refiere el artículo 4.1 a)

katu eta sindikatu-konfederazio hauek proposatuko dituzte bakoitzaren ordezkaritza-mailaren arabera: Batzordea eratu edo berritzerakoan ordezkaritzarik handiena duten sindikatu eta konfederazioek eta gutxieneko ordezkaritza dutenek. Gutxieneko ordezkaritza hori langile-ordezkarien, enpresa-batzordeetako kideen eta herri-administrazioetako dagozkion organoetako kideen %10 edo gehiagokoa izango da. Neurketa eta homologazioa Eusko Jaurlaritzak egin beharko ditu. Edonola ere, sindikatu eta sindikatu-konfederazio horiek lekua izango dute Batzordean.

b) Erabili beharreko arau orokorren arabera enpresarioen erakunde-ordezkaritza duten Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa-elkarteek proposatuko dituzte 4.1 b) atalean aipatzen diren kideak.

c) Honako hauek proposatuko dituzte 4.1 c) atalean aipatzen diren kideak: merkataritza, industria eta nabigazioko ganbaren ordezkaria, Autonomia Erkidegoan egoitza duten aurrezki-kutxa eta finantza-erakundeena, arrantzako elkargoena eta nekazaritzako elkargoena, talde bakoitzak bere barruko erabaki bidez; kooperatiben ordezkaria, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak; akziokako lan-baltzuen ordezkaria, Euskadiko Lan-Baltzuen Elkargoak; kontsumitzaileen elkarteen ordezkaria, Euskadiko Kontsumitzaileen Elkarteen Federazioak, eta Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkaria, unibertsitate horren gobernu-batzordeak.

d) 4.1 d) atalean aipatzen diren adituak kualifikazio eta esperientzia nahiz independentzia aitortua duten pertsonen artetik proposatuko dira, lege honen 10.1 atalean ezarritako gehiengoaren adostasunez.

2.– 4.1 atalaren a), b) eta c) kasuetan benetako kide bezainbeste ordezko proposatuko dira. Ordezkoak kideen ordez joan ahal izango dira bileretara.

3.– Horrela proposatutako batzordekideak lehendakariak izendatuko ditu. Dagozkien eginkizunak betetzeko erabateko autonomia eta independentzia izango dute.

*6. atala.*– Buruaren proposamena, izendapena eta kargutik kentzea.

1.– Batzordeburua lege honen 4.1 atalaren taldeetako pertsonen artetik edo taldeetakoak ez direnen artetik proposatuko da.

2.– Lehendakariak izendatuko du batzordeburua, Batzordeko kideen proposamenez eta lege honen 10.1 atalean ezarritako gehiengoaren adostasunez.

3.– Batzordeburua proposatzeko behar den gehiengoa lortu ezean, hari dagozkion eginkizunak txandaka hartuko ditu 4.1 atalaren a), b) eta c) taldeetako kide batek. Gehienez agintealdiaren herenean ihardungo du

serán designados por las organizaciones y confederaciones sindicales que en el momento de la constitución o renovación del Consejo ostenten la condición de más representativas y las representativas que hayan obtenido el 10% o más de delegados de personal y miembros de comité de empresa y de los correspondientes órganos de las Administraciones públicas, en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco, según cómputo y homologación realizados por el Gobierno Vasco y en proporción a su representatividad. En cualquier caso, dichas organizaciones y confederaciones sindicales tendrán presencia en el Consejo.

b) Los miembros a que se refiere el artículo 4.1 b) serán designados por las asociaciones empresariales de la Comunidad Autónoma vasca que ostenten la representación institucional de los empresarios según la normativa general de aplicación.

c) Los miembros a que se refiere el artículo 4.1 c) serán designados por los/as representantes de las cámaras de comercio, industria y navegación, cajas de ahorros y entidades financieras con sede en la Comunidad Autónoma, organizaciones pesqueras y organizaciones agrarias, por acuerdo entre las mismas, dentro de cada grupo; el/la representante de las cooperativas, por la Confederación de Cooperativas de Euskadi; el/la representante de las sociedades anónimas laborales, por la Agrupación de Sociedades Laborales de Euskadi; el/la representante de las organizaciones de consumidores, por la Federación de Asociaciones de Consumidores de Euskadi, y el/la representante de la Universidad del País Vasco, por su junta de gobierno.

d) Las personas expertas a que se refiere el artículo 4.1 d) serán designadas, entre personas de reconocida cualificación y experiencia e independencia, de conformidad con la mayoría prevista en el artículo 10.1 de la presente ley.

2.– En los supuestos a que se refieren los apartados a), b) y c) del artículo 4.1 se designará igual número de suplentes que los miembros efectivos. Los suplentes podrán asistir a las sesiones en sustitución de los miembros efectivos.

3.– Los miembros del Consejo así designados serán nombrados por el Lehendakari. En el ejercicio de las funciones que les corresponda actuarán con plena autonomía e independencia.

*Artículo 6.*– Designación, nombramiento y cese del presidente o presidenta.

1.– El presidente o la presidenta del Consejo podrá ser designado entre las personas de los grupos del artículo 4.1 de esta ley o entre personas que no provengan de aquéllos.

2.– El presidente o la presidenta será nombrado por el Lehendakari, a propuesta de los miembros del Consejo, que lo designará de conformidad con la mayoría prevista en el artículo 10.1 de la presente ley.

